

**BASES REGULADORAS DEL PROCESO DE SELECCIÓN PARA LA
CONTRATACIÓN TEMPORAL DE MONITORADO PARA EL PROYECTO UDAN
EUSKARAZ PARA EL AYUNTAMIENTO DE ORDUÑA EN EL AÑO 2018**

El Ayuntamiento de Orduña contratará un mínimo de 12 personas como monitores/as para el proyecto Udan Euskaraz 2018. Será imprescindible para presentar candidatura poseer el Título de Monitor/a de Tiempo Libre o estudios similares y el EGA o título equivalente. En euskara figura la información desarrollada:

Urduñako Udalak behintzat 12 begirale kontratatuko ditu 2018ko Udan Euskaraz proiektuan parte hartzeko, lanaldi erdian. Kontratazioa Udalhitz hitzarmenaren arabera burutuko da, aldi baterako udal langilea izango direlarik. Lan kontratua ekainaren 28tik uztailaren 28ra izango da (9:45tik 13:15era).

Hautagaitza aurkezteko epea eta lekua:

2018ko ekainaren 7tik 18ra (biak barne), Urduñako Udal Bulegoetan, Kale Zaharra 2, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:30etara (legezkoak diren aurkezpen beste moduak ere onartuko dira, beti ere hautagaitzak Udal Bulegoetara ekainaren 18ko 13:30ak baino lehenago heltzen badira)

Begiraleen funtzioak:

1. Uztailan zehar garatuko den Urduñako Udalaren Udan Euskaraz (udalekuak goizez) proiektuan begirale lanak burutu, ekintzen azken diseinuan parte hartuz, dinamizatzailearekin batera.
2. Dinamizatzailearen oharrak eta gomendioak jarraitu.
3. Beharrak, zailtasunak eta arazoak aurreikusi eta dinamizatzaileari esan.
4. Proiektua garatu, diseinatutako ekintzak aurrera eramanez.
5. Partaideen zerrendak hartu eta taldeak antolatu;
6. Sor daitezkeen arazoen aurrean erantzun egokiak bilatu dinamizatzailearekin batera;
7. Ekintzen ebaluazio fitxak burutu.

Hautagaitzarako aurkeztu beharreko agiriak (kopiak aurkeztu beharko dira):

1. Eskaera orria guztiz beteta eta esaldi hau gehitu: "Begirale lanposturako hautagaitza 2018."
2. NANaren kopia.
3. Astialdi Begirale Agiria (edo honekin erlazio zuzena izan dezaketen ikasketen agiriak).
4. EGA edo Euskara agiri baliokidea.
5. Udalekuak edo antzeko proiektuetan behintzat 2 hilabeteko lan esperientzia egiaztatzeko nahi beste agiri (lan kontratuak, enpresen ziurtagiriak, lan-bizitzaren ziurtagiria, ...).
6. Lanarekin zerikusi zuzena izan dezakeen formazio osagarriaren agiriak (informatikakoak, berdintasunarekin lotutakoak, talde dinamizazio ikastaroak, arazoaren ebazpenarekin lotutakoak, ekintza kooperatiboak eta ez lehiakorrei buruzko ikastaroak, umeen garapenarekin lotutakoak, ...).
7. Ekintza baten diseinua aurkeztu: Nahiago duzun adin tartea hartuta (Supertxikiak, 3-4 urte; Txikiak, 5-6 urte; Ertainak, 7-8 urte; edo, Nagusiak, 9-12 urte) ekintza bat eskematikoki diseinatu (tailerra, talde jokoa, ur jokoa, talde dinamikak, dantzak, ...). DinA4 tamainan aurkeztu beharko da, aurpegi bakarrean, Arial 12 eta lerroen artean tarte bikoitza utziz.

Urduña, 2018ko ekainaren 6a



URDUÑAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ORDUÑA
URDUÑA (BIZKAIA)
L. M. N. Y. M. L. CIUDAD DE ORDUÑA

ALKATEA